

bidaiari

naiz: en bidaia aldizkaria

2023ko maiatza | 020. zenbakia | 1,50€



AKUATIKOAK

Kubaren sakonean, ura gurtzen

CHONG KNEAS | ISANDLWANA | MAR MENOR | GR-11 ZEHARKALDIA | BERLIN

Badago ezagutzeko mundu bat



bidaiari
naiz:-en bidaia aldizkaria

11 ZENBAKI URTEAN, 15€

HARPIDETU ZAITEZ!

URTEKO HARPIDETZA Euskal Herrian 15€ · Ipar Euska Herrian 25€ · Estatu espainolean 18€ · Europan 50€

Bidal ezazu kupoi hau honako helbide honetara:

Bidaiari Portuetxe 23, 2. solairua 20018 Donostia (Gipuzkoa) EUSKAL HERRIA

Izena			
Abizenak			
Helbidea			
Herria	Posta Kodea	Herrialdea	
NAN	E-Posta	Telefonoa	
Kontu korrante zenbakia			
Kontuaren Jabea			

Nahiago izanez gero, mezu elektronikoko bat bidal dezakezu bidaiari@astero.net helbidera, kupoiaren azaltzen diren datuekin edo www.naiz.eus/bidaiari web orrian sar zaitezke eta harpideteko formularioa bete dezakezu.

Urruñia distribution & services, S.L.-ren produktuei eta/edo sustapenei buruzko informaziorik jaso nahi ez baduzu, markatu X bat laukian ☐

Sustapen honen barruan jasotako datu pertsonalak Herritar Berri SLU (Portuetxe 23, 2. 20018 Donostia) eta Urruñia distribution & services SL-en (Kale Nagusia 2 - 4, 48001 Bilbo) datu-base batean sartuko dira. Datuak guztiz konfidentzialak dira, datu pertsonalak babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko lege Organikoari jarraiki. Nolanahi ere, eskuratzeko, zuzentzeko, aurka egiteko edo ezereztzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzu. Horretarako, Herritar Berri SLU (Portuetxe 23, 2. 20018 Donostia) helbidera jo behar duzu.

bidaiari 020

2023ko maiatza

Zazpi Haizetara
aldizkariaren 169.
zenbakia litzatekeena

AZALEKO ARGAZKIA:

Nuria LÓPEZ

TORRES

ARGITARATZAILEA:

Astero.

Herritar Berri SLU.

Zazpi Haizetara

aldizkariaren lan

taldeak ekoiztua.

EDITOREA:

Eguzki

Agirrezabalaga

eta Ibai Azparren

JATORRIZKO DISEINUA:

Grafik Sarea +

Artefakto

MAKETAZIOA:

Infografia saila

EGOITZA:

Portuetxe, 23 -2. A

20018 Donostia

HELBIDE ELEKTRONIKOA:

bidaiari@naiz.eus

TELEFONOA:

943 31 69 99

www.naiz.eus/bidaiari

LEGE GORDAILUA:

01361-2021

INPRIMATZEN DU:

Printek

Inprimategia.

Zamudio



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Gipuzkoako
Foru Aldundia




06 CHONG KNEAS

Kanbodiako Tonle Sap lakua bizitzaren miraria da. Haren ur goraldi eta lehorte zikloen mende dago herrialde osoaren oparotasuna. Dozenaka herri flotatzailek zedarritzen dituzte aintziraren ibaiertzak, eta han bizi direnek ur-ninfak balira bezala egiten dute guztia: jan, lo, maitatu, ikasi, jolastu, hil, barre... Mikrounibertso urtsua da, distopia batetik ateratakoa dirudiena. Chong Kneas da lurrik gabeko herri horietako bat.



14 URTARRAK Komunitate ezezaguna da, eta Kubako Rosario mendilerroan bakartuta bizi dira, urarekin konektatuta. Bizimodu xumea, globalizaziotik urrun.



30 ELADIO SANTACARA

Hiru bira eman zizkion munduari; horietako bi furgonetarekin, eta bestea motxilarekin. Roge Blascok hil aurretik elkarrizketatu zuen.



44 NAFAR PIRINIOKO ZAINA

GR-II zeharkaldiak Pirinioetako bi muturrak lotzen ditu: Cap de Creus Gironan, eta Higer lurmuturra Gipuzkoan. 900 kilometro luze eta gogor.



52 BERTATIK BERTARA: EGIN PLANAK! Allotzeko urtegia, Nafarroak ere badu hondartza; Fantasiar beteko dira Alondegiko pantailak; Balenciagaren lan prozesua Getarian... **56 HIRIAK MOTZEAN** Berlin, historiaren lekuko **60 MUNDUAN PASIERAN** Hiri debekatua; Vittorio Emanuele II, horiz margotuta; Kaliforniako superloratzearen bila; Paros uharteko lehenengo turistak...



AZKEN TRISHAWAK

Kuala Lumpurreko kaleak argiztatzen dituzten bizitaxien amaiera

Malaysiar lantegi landatar batean, pneumatikoz betea, ile zuriko gizon estoiko bat, kamiseta eta praka motzez jantzita, triziklo ia bukatua ikuskatzen ari da. Choo Yew Choon bizitaxi-artisau beteranoa da, eta Penang uhartean, Kuala Lumpur iparraldean, desagertzeko bidean dagoen azken lanbidea dela nabarmendu du.

Baina urte batzuk barru erretiroa hartzeko asmoa du. Trishawak, edo pedalezko taxiak, ohikoak izan ziren Malaysian eta eskualdeko beste herrialde batzuetan. Bere ospea murriztu egin da eskualdeko garapen ekonomikoarekin batera garraio sistema modernoak eraiki ahala. Orain, benetako garraiorako ia interesik ez dagoenez, Chook jasotzen dituen eskaerak apaingarri edo bildumako objektu bezala erakusteko dira. Urtean hiruzpalau triziklo egiten ditu eta bakoitzak 7.500 ringgitenetan (1.700 dolar) saltzen ditu.

130 trishaws pasatxo daude Penangen, eta horiek hegoaldeko Malaca estatuan dauden dozena bakanetatik estilo ezberdina dute. Malacako trishaw-ak gidaria bidaiarien ondoan esertzeko diseinatuta daude, eta Penangekoak, berriz, atzetik dabilta gidaria pedalei eragiten. Malaysiako kaleetan zehar, batak zein besteak turisten arreta erakartzen jarraitzen dute.

Duela mende bat hasi zen trishawseraikitzaileen familia baten laugarren belaunaldiko kidea da Choo. 80ko hamarkadaren amaieran hartu zuen lekukoa, hain zuzen ere, bere aitak osasun arazoak sufritu ondoren. Bere semeetako inork ez du trishaw-etan interesik, eta bera ere ez dago haiei irakasteko prest, lan gogorra delako eta aurkitzen zailak diren ordezkio piezak eskatzen dituelako. Eta erretiroa hartzeko irrikan dago. «Agian nire semearen etxean geratuko naiz edo oporretara joango naiz», dio Chook irribarre txiki batekin. Mohd RASFAN



CHONG KNEAS

Ur-goraldien mende

Testua eta argazkiak: **Xabier BAÑUELOS**








Kanbodiako Tonle Sap lakua bizitzaren miraria da. Bere ur-goraldi eta lehorte zikloen baitan dago herrialde oso baten oparotasuna. Arnasa hartzea bezain beharrezkoa den urari lotuta, dozenaka herri flotatzailek zedarritzen dituzte aintziraren ibaiertzak, eta bertan bizi direnek begi urratuzko ur-ninfa edo ur-jainkoak balira bezala egiten dute guztia: jan, lo, maitatu, ikasi, salerosi, jolastu, lan egin, hil, barre... Chong Kneas da lurrik gabeko herri horietako bat.



Erreportajea abiatzen duen argazkian, Chong Kneaseko “etorbide” nagusia. Ezkerrean, merkantzia-ontzi bat Tonle ibaian zehar. Eskuinean, neskatxa bat pitoi batekin, turistak erakartzen.

Chong Kneas bidearen amaieran agertu zaigu. Irudipen edo ispilatze bat dirudi, basamortuko lurzoru harritsuaren ordeztu aintziraren gainazal malgua erakusten diguna. Baina hemen ura ez da irudi birtual bat, ez da adimenaren jukutria bat, errealitatea gure begien bidez ilusio bihurtzen duen azpikeria. Dena sortzen da bertatik, uretatik. Edo flotatu egiten du –literalki–, uhinen artean kulunkan; oholez, bidai hutsez eta kamioi-gurpilez egindako plataformen gainean edo egurrezko eta banbuzko piloteen gainean dago, balantzaka ari diren pasabideen bidez lotutako palafito-sare katramilatua sortuz. Mikrounibertso urtsua da, distopia batetik ateratakoa dirudiena. Lurzoru egonkorra gauza arrotza da hemen.

“Cayuco” itxurako txalupa luze baten brankan zenbait ordu eman ostean iritsi naiz. Tonle lakuaren iparraldearen eta Kanbodiako hiriburu Phnom Penh-en arteko linea erregularra egiten du; 250 kilometro hegoaldera dago hiriburua. «Gure bidea» esan dugu, baina zehatzagoa da «gure nabigazioa» esatea, gorputza izerdiz bustitzen digun ibai-zeharbidea, eguzki makurra eta tropikoko hezetan latzaren azpian. Hala eta guztiz ere, atsegina da bidai. Garraio publiko bateko ohiko hizketaldiak entzunez etorri gara; khmerera hizkuntzan, noski. Bertako jendeaz gain, baziren, Angkor-erako bidean, nik bezala, ibai aukeratu duten kurioso gutxi batzuk ere.



Ibaian ibiltzeak espiritua lasaitzen du, aldi berean gure zentzumenak piztuz. Sap ibaia zeharkatzen ari gara. Ontzi zirkulazioa Mekongen baino txikiagoa da, baina mota guztietako ontziekin topo egiten dugu, askotariko produktuez kargatutako egurrezko txalupa eta gabarretatik hasita tamaina txiki eta ertaineko solteko gaien metalezko itsasontzietaraino. Paisaia lau, berde eta arrear, urre eta gorri ilun koloreko wat txikiak ikus ditzakegu; theravada eskola budistako tenpluak dira horiek. Muturretan herensugegorputzak dituzten wat-en teilatu zorrotzekin batera, tarteka herriak eta tarteka etxebizitza bakanak ageri dira labore sailen artean. Ibaiertzetan bizitza lasai mugitzen da, Hego-ekialdeko Asiako laku handira, Tonle Sap-era, goazen bitartean.

UR-GORALDIEN ERRITMORA BIZITZEN Ura biziraupenaren oinarri biologikoa da, baina Indotxinako lur ureztatu hauetan traza ia ontologikoa hartzen du: existitzen dena urari esker existitzen da. Tonle Sap aintziraren garrantziaz ohartarazteko aski da adieraztea Hego-ekialdeko Asiako barnealdeko ur-masa handiena zeharkatzen ari garela, ez Kanbodiakoa soilik. Handia da, bai; izan ere, bertan sartzen garenean, badirudi itsasoan sartzen ari garela, baina bere tamaina oso aldakorra da, eta asko aldatzen da mon-tzoi garaian ikusi edo urtaro lehorrean ikusi (garai lehorrean ere euria egiten du, baina askoz gutxiago). Eta hain da desberdina urtaro batean edo



bestean, ezen kosta egiten baita laku berbera dela sinestea; izan ere, 2.600 kilometro koadro inguru izatetik 24.600 kilometro koadro baino gehiago izatera pasa daiteke (zabalera ia hamar aldiz handiagoa, zeinak sakonera ere handitzen duen aldi berean, metro bat, hiru, bost...).

Hainbeste euri egiten duenez ez dela harritzekoa pentsatzen dugu berehala. Baina azalpena ez da hain sinplea. Eta hori martxari arreta jartzean nabaritzen dugu, ohartzen garenean badela “normala” ez den zerbait. Goi-ibarrerantz goaz, eta gero ibaian gora. Baina korronteak kontrakoa adierazi nahi digu, gure alde doa, branka barnealderantz jaurtiz eta itsasotik urrunduz. Bai, halaxe da, kontrako noranzkoan doa. Sinesgaitza? Eurite-garaian, ekain eta abendu artean, Mekong ibaian hainbesteko ur-bolumena dago, non itsasoak ezin duen dena hartu, eta ura, atzera egin, eta ibilguan gora itzultzen da, korrontearen noranzkoa alderantzikatuz, Mekongen eta behe-arroko erreketan. Hala, ura ibaitik lakuraino itzultzen da; gainezka egin, ibilgutik atera, ibaiertzak urpetu eta sedimentuak nonahi zabaltzen ditu, emankortasun eta arrain festa betean.

Nilo ibaiarekin gertatzen den bezala, ur-goraldi horiek urtero berritzen dute ama lurraren umetokia, ugalkortasun guztiaren arragoa. Eta jendeak bedekortasun gisa hartzen du emaria, bere itxaropena uraren gainean irauliz

Ezkerretik eskuinera, familia bat herrira itzultzen; merkataritza Tonle Sap lakuko txalupa baten gainean; ama eta alaba zain, etxeko kaiaren ondoan; eta neskato bat “kalea” gurutzatzen metalezko ontzi handi baten gainean. Behean, krokodiloak, plataforma gaineko etxe flotagarriak, familia bat terrazan eta tenplu budista therebatu baten pinakulua Tonle ibaiaren ertzeko landarediaren atzean.



**Ura biziraupenaren
oinarri biologikoa
da, baina
Indotxinako lur
ureztatu hauetan
traza ia
ontologikoa
hartzen du:
existitzen dena
urari esker
existitzen da.**

eta, are gehiago, harekin sinbiosian sartuz. Hala, herritarren bizitzek ur-emariaren arabera gora eta behera egiten dute, eta, gora egiten dutenean festa bihurtzen da. Lakuaren inguruan milaka lagunentzako bizimodua sortu da, eta uholdeek laboreetarako eta arrantzarako ekartzen duten onuraz baliatzen dira.

Jendea ur-goraldien erritmoan bizi da, haien arabeko komunitateak kokatu, eraiki eta sortzen dira. Lakua beren etxe bihurtzen da (ez da metafora bat, inondik inora); ez ibaiertzak, ez inguratzen duen lur finkoa, baizik eta lakua bera. Izan ere, urak guztia estaliko du, eta biztanle guztiek bat egiten dute urarekin.

UR GAINEAN BIZITZEA Chong Kneas da aintziran eta ibaian zehar ur gainean eraikita dauden herri ugarietako bat. Ferryak iristen diren portu txikian lehorreratu gara, eta txalupa motordun txiki bat hartu dugu herriko kaleak zeharkatzeko. “Kaleak” esatea ez da oso zehatza; hobeto esanda, kaleez, oinez ibiltzeaz eta gurpilez ahaztu behar dugu, hemen garraio guztia ur gainekoa baita, kanoen eta antzeko tramankulu flotatzailen bidezkoa. Kanalez ere ezin dugu hitz egin, urak aske baitabiltza, ezerk hertsu, zuzendu edo azpiratu gabe.

Nolanahi ere, ababorrera eta istriborrera, palafitoak eta plataforma gaineko eraikuntzak daude. Lehenak piloteen bidez ubidearen hondora loturik dauden egitura finko altuak dira. Bigarrenak eraikuntza flotatzaille eta mugikor sinpleak dira. Azken hauek, nahi bezala tokiz alda daitezkeenez, egun batetik bestera aldatzen dute herriaren trazadura; horrek zaildu egiten du orientatzea, lehendik ere zaila dena. Atentzioa ematen dute kartel elebidunek; khmerren alfabeto katramilatuan eta vietnamdarren alfabeto latindar apainduan idatzita daude; izan ere, herri flotatzailleetako biztanle gehienak jatorri vietnamdarrekoak dira.

Zalaparta etengabea da. Mugimendu handia dago: batetik bestera doazen familiak, emakumezko saltzaileak produktuak eskaintzen (mangostana,



kokoa, sandia, pitahaya, mangoa, duriana, logana, barazkiak...) lanera, erosketak egitera, medikuarenera edo eskolara doan jendea; guztiak, aurrera eta atzera, garraio posible bakarrean doaz, ur gainean ibili eta hondoratzen ez den zerbaitetan. Bereziki alaia da gazteen jolasa; lurraren koloreko ibaiko uretara jauzika ari dira, edo alde batetik bestera metalezko katilu handietan. Ontzi kaskar horiek ez iraultzeko ere entrenamendua beharko dute segur aski. Eta bisitariengana “atrakzio” turistikoak eskaintzera hurbiltzen denik ere ez da falta; esaterako, pitoi suge bat lepoan jarrita duten adin txikiko haurren “ikuskizuna” topa dezakegu.

Terraza duten etxebizitzaren ondokigara; uniforme jantzitako ikasle betetako eskola ondokigero; jatetxe eta tabernak, dendak, gasolindegia eta tenplu budista txiki bat datoz ondoren. IHS kristogramaren gainean gurutze beltza duen eliza bat ere badago, agian jesuiten ardurapekoa. Etxe askotan, tranpa-zulo baten azpian, beren arrain haztegia dute; pentsuarekin elikatzen dituzte. Ia desagertuta dauden siamdar krokodiloen abeletxe bat ere badago; egurrezko zelda batean pilatuta daude, ez animalia horren kontserbazioa bermatzeko, baizik eta bere larrua eta haragia saltzeko, bai Kanbodian, bai eta Txinan, Thailandian eta Vietnamen ere.

Uhin leunen erritmoan goaz. Sentipen bitxia dugu, dena edo ia dena begi-bistan dagoen agertoki baten aurrean gaudela iruditzen zaigu. Gu paretik pasatzean jendeak bere bizitza egiten segitzen du; irribarre egiten digute jaten ari diren bitartean, edo zerbaiten edo norbaiten zain beren txalupan eserita daudela, edo senideekin edo bizilagunekin hitz egiten ari direla; beste batzuk telebista ikusten, hamaka batean lotan edo beren zereginetan buru-belarri ari dira. Uraren arrasean ibiltzeak dimentsio bikoitza eskaintzen du: batetik, gure begien mailan igarotzen den egunerokotasunarena, eta, bestetik, eraikin sareena, zeintzuen dramatismo zenital edo kontrapikatua lakuaren bolumenaren arabera den. Chong Knea, ur gaineko beste edozein herri bezala, mundu harrigarria da. Baina, berez, sakon begiratuta, mundu nahiko normala da, betiere ur gainekoa.

GIDA PRAKTIKOA

ZEIN HERRI BISITATU

Chong Knea da iristeko errazena, Siem Reap-eko ontziaren ibilbidearen amaieran dago eta. Baina ez da inguru horretan bisita daitekeen herri flotatzaile bakarra. Kompong Phluk ere gomendatzen dugu, banbuzko etxe orratzen herria, 7 metroraingo palafitoak dituen, baita Kompong Khleang ere, guztien artean handiena. Bisitari gutxiago jasotzen dituzte eskuinertzeko herriek, esaterako, Kompong Luong-ek, eta ibai gainean dauden Phoum Kandal eta Chong Kos-ek.

NOLA BISITATU

Siem Reap-etik bisita antolatua egitea da errazena. Norbere kabuz egiteko, tuk-tuk edo taxiz joan beharra dago herri horietako edozeinetara eta han txalupa bat kontratatatu. Phnom Penh-etik itsasontziz etorritako gero, ontzia lehorratze-portuan bertan aurki daiteke. Eskuineko ibaiertzeko herrietara autobusean iristen da Phnom Penh-etik. Kompong Luongera joateko Krakorrera iritsi behar da lehenik eta handik oinez edo tuk-tukean joan. Phoum Kandal-era eta Chong Kos-era Kampong Chhnang-etik sartzen da.

ZENBAT DENBORA

Siem Reap-etik joanda, egun batean, goiz eta arratsalde, herri pare bat ikus daitezke. Phnom Penh-etik Kampong Chhnang-era bi ordu daude eta Krakorreraino, hiru ordu.<====


AKUATIKOAK

Rosario mendilerroko barrunbeetan

Testua eta argazkiak: **Nuria LOPEZ TORRES**



«Akuatikoak» komunitate ezezaguna da, Rosario mendilerroan isolatuta bizi dena, muinoen arteko haran sakon batean. Bizimodu xumea dute, lurrarekin eta bereziki urarekin konektatuta eta mundu globalizatutik deskonektatuta, ingurune benetan pribilegiatuan.





Machucarainoko bidea –akuatikoak bizi diren haranerainokoa–, aldapatsua eta haitz askokoa da. Robertoren traktorea edo zaldia bakarrik iristen dira hara. Behean, Juana etxeko atarian dago, Jose Luis senarrarekin, Angel suhiarekin eta Lorenzo semearekin, euriari begira. Eskuinean, 22 urteko Leandra Rodriguez Mirandaren irudia, 26 urteko Yasmani senarrarekin, 4 urteko semearekin eta 3 urteko alabarekin batera.






Gutxi gorabehera 155 kilometro daude Habanatik Machuca haran sakonera; hala ere, ekialdeko autobidea utzitakoan badirudi distantzia hori lauhoiztu egiten dela. Denbora geldirik dagoen Rosario mendilerroaren hondora bidaiatu dugu aurretik. Google Maps-ek San Kristobal parean, Artemisa probintzian, galtzen du pista, eta han hasten da Machuca bailara ezezagunaren bilaketa. Han bizi da “akuatikoen” komunitatea. San Kristobal herriko biztanleentzat haien berri izan baina inoiz ikusi ez dituzten espezie arraro bateko animalien pareko dira. Denboraren poderioz, mitoek eta elezaharrek haiei buruzko bertsio desberdinak ematen dituzte.

Roberto, baxua eta aurpegi adeitsukoa, mekanikariarekin ari da traktoreari azken konponketak egiten, ibarrera jaitsi eta hornigai batzuk ekarri ahal izateko. Joan-etorriko bidaia egiteko nahikoa erregai lortu du. 34 kilometro, bi ibilbide horien artean. Tailer mekanikoan dagoen batek dioenez,





«bizkarra zatitzen zaizu» harri eta lohi izugarriz beteriko ibilbidean, izugarrizko amildegien artean.

Bi orduko ibilbidearen ondoren, bide malkartsua lur gorrixkako lautada bihurtzen da, labore emankorreko soroak dituen. Haran argitsu bat dugu aurrean, inguru ikusgarri horretan bizi diren 325 laguneren etxeekin. Ingaruko 325 biztanleetatik 170 “akuatikoak” deituriko sektako kideak dira.

Akuatikoak komunitate ezezaguna dira kubatar gehienentzat. Haiek ez dira inoiz medikuarenera edo ospitalera joaten, eta ez dute inolako sendagairik hartzen. Urarekin sendatzen dituzte gaixotasunak. Ez dira eskolara joaten eta kontserbadoreenak ez dute elektrizitaterik erabiltzen. Ez daude erregistro zibilean inskribatuta, eta, beraz, ez dute nortasun-agiririk. Ez dute inolako dokumenturik sinatu nahi, ezta nahitaezko zerbitzu militarra eta soziala egin nahi ere. Esan liteke hauek direla beren hamar aginduak.

Etxeko atarian, Aracelio Mirandaren argazkia. 77 urte ditu eta patriarketako bat da. Vicenta Ceja Izquierdo da bere emaztea, 70 urtekoa. Behean, Miguel Miranda Ribera, beste patriarketako bat. Gaixorik daudenean ibaira joaten dira. Salet ere ikus dezakegu. 10 urte ditu eta amona zaintzen du. Goian, Antoñica Izquierdoren bizitzari eta historiari buruzko liburua, eta bere egunkarietako bat.

**Akuatikoak
lurrarekin eta ziklo
naturalekin estuki
lotuta bizi dira.
Mundu
globalizatutik
urrun, haien
bizitzaren oinarria
sinpletasuna eta
kanpoko
munduaren mende
ahalik eta gutxien
egotea da**

AKUATIKOEN JATORRIA Antoñica Izquierdo andereari, Cayos San Felipeko baserritar erdi analfabetoari, 1936an larriki gaixotu zitzaion bere seme txikia, Eugenio, zazpitik azkena. Guztiz etsita zegoela, haurra sendagilearen eramateko dirurik gabe eta semea hil egingo zela sinetsita, Antoñicari Ama Birjina agertu zitzaion; hark haurra uretan bainatu behar zuela esan zion. Bi urteko mutikoa biluztu eta etxe ondoko ur hotzeko errekan sartu zuen. Umeari sukarra jaitsi zitzaion eta, ondoren, guztiz sendatu zen. Bigarren errebelazio batean, Izquierdo andreak hau esan zuen: «Ama Birjinak lurreko dohakabeen babesle izendatu nau, horiek musu-truk laguntzeko eta sendatzeko, xentimorik ere kobratu gabe, botikarik gabe, eta uraren botere soilarekin».

1936 eta 1939 bitartean, Antoñica urarekin sendatzen zuen emakumea zela esan zitekeen, eta ospea eskualde osoan hedatu zen. Jendea Cayos de San Felipea joaten hasi zen, emakume horrek bere miraria egin zezan; orduan, inguruko medikuak beren pazienteen zerrenda pixkanaka murrizten ari zela ikusten hasi ziren. Antoñica jarraitzaile andana zuen. Eta lur gatazka baten ondorioz jarraitzaileak inguruko probintzietan sakabanatu ziren. Mila lagun inguru Rosario mendilerrera joan ziren, eta han Machuca haranaren barrenean finkatu ziren. Infernua bera bezain leku ezkutu eta urrundua.

ZAZPI HAMARKADAKO ISOLAMENDUA Ez da airerik mugitzen, eta hezetasuna itogarria da. Aurreko eguneko euriak ez du giroa freskatzea lortu, eta Maria ez dago ondo. Sukarra du eta goiz osoa darama bere logelako ohean etzanda. Hiru baso ur hartu ditu eta ibaian murgildu da bere ondoeza arintzeko. Gelako atearen ondoan, kulunkaulki zahar batean eserita dagoen Saletetik, hamar urteko bilobak, laguntzen du. Konpainia onean dago Maria.

Juana bere gaztaina-koloreko ile luzea menderatu nahian ari da eskuila batekin. Gerri azpiraino iristen zaio ilea. Lorenzo hamar urteko semeak, berriaz, alkandora berria jantzi du etxetik lau kilometrorra bizi den senide baten urtebetetzera joateko. Bere koinatua, Angel, zaldi baten bila dator hura eramateko.

Trumoiak entzuten dira, eta atzealdean, bi muinoren artean, zeru urdin eta beltza argitzen duten izpi amaigabeak ikusten dira. Palmondoz jositako mendiak, orratz zorrotzak diruditenak; paisaia hori ikusten du egunero Juanak. Euri-garaia da eta ia arratsaldero erritual bera errepikatzen dela dirudi. Naturaren botereak argi uzten du berak agintzen duela eta lurrin bustiak hartzen du dena, bizitzaren indarra gogora ekarri. Lasaitasuna amaitu da; lohiz betetako bide malkartsuak Lorenzo arropaz aldatzera behartu du. Alkandora berria eskegi eta zahar bat jantzi du.

Bidezidor sigi-sagatsu batek zeharkatzen du landaretza hostotsua, haranaren bizkarrezur gisa. Ibilaldi eta komunikazio bide bakarra da, eta sei kilometro egin ondoren, Machuca herrixkara iristen da. Han daude eskola, maisuaren etxea, mediku-kontsultategia, medikuaren eta erizainaren etxea, ustez zerbait saltzen duen upategia eta beste hiru familiaren etxebizitza. Hori da herri osoaren erdigunea. Haran estuan dagoen espazio zabal bakanetako bat da.

Alexis maisu gisa iritsi zen Machucara, bere gizarte zerbitzua egitera, urtebete iraungo zuen alfabetatze misioan, eta hogei urte daramatza bertan: «Ibar honek harrapatu egin ninduen eta hemen geratu nintzen. Pribilegioa da natura honetaz inguratuta bizitzea, nahiz eta bizi-baldintzak errazak ez izan». Alexisen irakasle bokazioa neurrigabea da. Behin eta berriz saiatuz eta saiatuz, akuatikoen familietako haur batzuk eskolara joatea lortu dute, denbora gutxirako bada ere.

Akuatikoak lurrarekin eta ziklo naturalekin estuki lotuta bizi dira. Mundu globalizatutik urrun, haien bizitzaren oinarria sinpletasuna eta kanpoko munduaren mende ahalik eta gutxien egotea da. «Guk bizitza apal eta naturala daramagu», esan du 78 urteko Jesus Rodriguezek, bai-larako uretako hiru patriarkatueta batek. «Gurea ez dator bat gober-nuei interesatzen zaienarekin».

Ahots leun eta sinesmen handiko gizon honek ez du argindarrik erabiltzen, eta ez omen da inoiz gaixotu. Uraren sendatzeko ahal-menean sinesten du, askotan ikusi duelako. «Nire anaiari txakur batek kosk egin zion txikitan, errabiaz gaixotu zen eta urak sendatu zuen».

Bere baratzetik sandiak atera ostean oraindik eskuak gorritz tindatuta di-tuela, denboraren poderioz horitutako eta zirriborroz betetako libreta zahar bat erakusten du: «Hau Antoñica Izquierdok kartzelan egon zen bi-tartean idatzi zuen libretetako bat da; hemen dago egia. Erotzat hartu zuten, baina bera Jesu Kristok esandako gauza bera esatera etorri zen, eta Mazorran giltzapetu zuten». Antza denez, bere doktrinaren antzeko libreta asko idatzi zituen, Antoñica Izquierdok, edo behintzat gaizki ida-tzi. Gidaliburu espiritual moduko bat da, baina bere eldarnio eta ikuspegi apokaliptikoak ere jasotzen ditu.

ETORKIZUNeko GALDERAK Azken hamarkadetan, ura gurtzen duten jarraitzaileen kopurua asko murriztu da. Ez dago arrazoi bakar bat, baina Machuca haraneko jendeak bizi dituen bizi-baldintza gogorrek, belau-naldi-aldaketek eta globalizazioak eragina izan dute. Gero eta gazte gehiago aldentzen dira Machuca bezalako leku batean lurretik bizitzeak dakarren gogortasunetik; aukera gehiago dituzten herri edo hirietara joaten dira. Beste gazte batzuek, ordea, euren jaiolekua utzi nahi ez, eta arauak malgutzearen eta XXI. mendera hobeto egokitzearen aldeko apus-tua egin dute.

14 urteko Joana laugarren mailara arte joan da eskolara eta irakurtzen eta idazten daki. Etxean liburutik ez duen arren, marraztea eta irakurtzea gustatzen zaiola aitortu du, eta eskolara luzaroagoan joan ahal izatea nahi lukeela. Alabaina, bere aitona Jesus Rodriguezekin bizi da, Antoñi-cako hiru patriarketako bat eta sinesmenen jarraitzaile sutsuarekin, eta honek ez dio ikasketekin jarraitzeko aukerarik ematen.

Joana bezalako gazte asko ataka horretan daude gaur egun; zer aukeratu, kanpoko mundua ezagutzeko jakin-mina asetzea edota familiaren bizi-modu tradizionalari eustea.

GIDA PRAKTIKOA

NOLA IRITSI

Iberia eta AirEuropa konpainiek zuzeneko hegaldiak dituzte Habanara. Artemisa probintzian San Kristobal herria dago. Bertatik hasiko gara Rosario mendilerrora igotzen, Machuca haranera iristeko. Haranera jaisteko, mendilerroko bizilagunen bat kontratatu behar da, zaldiz edo lur orotako ibilgailu bereziz jaits gaitzan.

NON HARTU OSTATU

Machucan ez dago ostaturik; beraz, kanpatu beharra dago, bizilagun atsegin batek bere etxe xumean ostatu eman nahi izan ezean.

KONEKTIBITATEA

Telefono-seinaleak ez dira Machuca haranera iristen, eta, beraz, telefono mugikorra ez dabil.

Isandlwana

Inperio baten porrotaren antzezpena







ArgazkiaK: **Marco LONGARI**

Britainiar Armadak 1879. urtean indar indigena armatu baten aurkako porrotik handiena jasan zuen. 20.000 gudari zuluk britainiarren garnizio bat garaitu zuten orain Hegoafrika den Isandlwana muinoan. Han Amabutho eta Dundee Diehards Dundeed-eko boluntarioek bataila birsortzen dute urtero.









A

nimalien larruz, hezurrezko lepokoez eta lantzak gora eta behera astinduz, gudari zuluak prest daude britainiar kasaka gorrien aurkako batailarako. Isandlwana muinoaren oinean, zeinak gudu epikoari izena eman baitzion, lur harritsua uda australeko eguzki kiskalgarri batek berotzen du. Hala ere, beroak ez du eragotziko urterro ospatzen den Hegoafrikako tropa kolonialei ezarritako porrotik umiliagarrienetako baten birsortzea martxan jartzea.

Koordenatu horietan bertan, KwaZulu-Natal probintziako hegoaldean, 20.000 bat gudari zuluk britainiar garnizio bati eraso zioten eta fusilez armatutako soldaduak zapaldu zituzten, 1879ko urtarrilaren 22an, ordu luzez gorputzez gorputzeko borroka basati eta odoltsuaren ondoren. «Egun horretan britainiarrak garaitu genituen. Borroka hori harro egoteko arrazoia da Zulu Herriarentzat, eta horrela eraiki genuen zuluen nazioa», azaldu du Simelane Velaphik, gerlari baten papera interpretatzen duenak.

Gerra anglozulua bereziki odoltsuak diren hainbat gudurengatik nabarmentzen da, horien artean zuluen hasierako garaipena Isandlwana-nako batailan. Inor gutxi atera zen bizirik: 1.300 soldadu britainiar baino gehiago hil ziren, eta zuluak ere baja ugari izan zituzten. Duela mende bat baino gehiago, ia planeta osoa hartzen zuen inperio baten bizkarrezurra zen britainiar armadaren porrot ikaragarriaren albisteak arreta eman zuen Europa osoan.


Cetshwayo errege zuluak aurre egin zion britainiar armadari 1879ko goiz hartan. Alboetatik eraso zieten soldaduei. Zuluak, batez ere, aza-gaiekin, burdinazko lantzekin eta behi-larrazko ezkutuekin armaturik zeuden. Tropa britainiar eta kolonialak fusil modernoekin, kanoiekin eta kohete-bateria batekin armaturik zihoazen. Teknologia militarrean alde handia zegoen arren, soldadu zuluen kopuru handiak gaizki zuzendutako britainiar talde bat garaitu zuen.

Hala, Amabutho eta Dundee Diehards Dundee-eko boluntarioek gudua birsortzen dute urtero. Antzezpenean janzkera tradizionalak dantzatzen dute, eta gudari zuluak soldadu britainiarrengana oldartzen dira, hauek sutautsezko balekin tiro egiten duten bitartean, baina soin biluziko aurkariei aurrera egitea eragotzi ezinik.

Zuluen garaipenak gutxi iraun zuen. Hurrengo gauean, armada britainiarrak behin betiko ezbeharren lehena eman zion Zulu Erresumari. Hilabete batzuk geroago, Ulundiko bataila gertatu zen, Zulu Erresumaren amaiera suposatu zuena. 11 milioiko populazioarekin, etnia hau herrialdeko handiena da eta biztanle guztien bostena da.

Hala ere, historiak gordetzen du lantzek su-armen aurka duten garaipena, eta Hegoafrikako talde etniko handienaren legenda gerlaria sendotu zuen.





Jose ELADIO SANTACARA

Amaierarik gabeko errepidean

Jose Eladio Santacara Zarrakazteluko (Nafarroa) bere etxeko ataritik abiatzen zen amaierarik gabeko errepideetan gidatzeko. Hiru bira egin zizkion munduari, horietako bi “Ibiletxe” deitzen zion furgoneta leialarekin, eta bestea motxilarekin. Gainera, furgoneta horrekin Afrika kontinentea inguratu zuen, Europa osoa bisitatu zuen eta beste batean Ulan Batorraino (Mongolia) joan zen.

Txinan ere egonaldi luzeak egin zituen, mandarin txinera ikasten. Hiru aldiz egin zuen Done Jakue bidea bizikletaz, eta ezin konta ahala irteera.

Telekomunikazioetako ingeniaria zen, teknologiako irakaslea eta poliglota. Gaztetan Morris auto bat gidatu zuen Eskandinaviara eta Sobietar Batasunera. Erretiroa hartu ondoren, munduaren lehen itzuliari ekin zion, eta 1.059 egun eman zituen 2003 eta 2006 artean. 150.000 kilometro egin zituen gidatzen 59 herrialdetan barrena.

“Bost kontinenteak musikaren bidez” deitu zion proiektuari. Txistua, akordeoia eta haga-tronboia izan zituen lagun. Hamaika kulturatako erritmo eta doinuak bildu, grabatu eta artxibatu zituen.

Bere abenturen bi liburu ere argitaratu zituen: “Efectivamente, la tierra es redonda” (Biribila da lurra, jakina) 2018an eta “África, madre olvidada

Testua
Roge BLASCO
Argazkiak
Jose ELADIO SANTACARA

y maltratada” (Afrika, ama ahaztua eta tratatu txarrak emandakoa) 2020an.

Jose Eladio 77 urterekin hil zen, 2022ko abenduan, Madrilén, Iberiar penintsulan bidaiatzen, “Ibiletxe” barruan lo egiten ari zela.

Hari gorazarre egitearren, Zarrakaztelura joan ginen, familiarekin, anai-arrebekin eta ilobekin egotera eta abenturaz betetako bizitzako uneak gogoratzera. “Ibiletxe” ezagutzeko aukera ere izan genuen, Joserekin batera amaierarik gabeko bidaia harrigarrien protagonista.

Gure bisitaren biharamunean, martxoaren 19an, omenaldi bat egin zioten leku askotatik etorritako lagunek eta adiskideek, eta ez zen falta izan aurrekurik eta jotarik.

Joseri elkarrizketa asko egin nizkion Radio Euskadiko “Levando anclas” saiorako. Haren bi liburuen karietara egindako elkarrizketa haietako pasarte batzuk ekarri ditut hona.

Ibiletxe furgonetarekin Zarrakaztelutik Zarrakaztelura egindako zure lehen bira jasotzen duzu 592 orrialdetan. Ba al zenekien frogatzera zindoazela lurra biribila dela?

Lanak eta nekeak ez zitzaizkidan falta izan. Orain ohituta nago. Baina hasieran ez genekien zer gertatuko zen, eta pentsaezinak ziren gauza asko gertatu ziren.



Elkarrizketa abiatzen duen argazkian, Nepalen, Annapurnak atzean dituela. Ondoren, Santakararen familia eta lagunak Zarrakazteluko plazan, agurreko omenaldiaren bezperan. Gero, Ushuaiara iritsi zenekoa. Beste irudi batek «Ibiletxe» furgoneta erakusten du, Brazzaville Kongoko euri-garaiko lokatz bideak gainditzen.

Kilometro asko izan ziren!

Astakeria bat. Normalean 100.000 edo 120.000 kilometro osaturik bira egiten zaio munduari, baina nirea 150.000 kilometrokoa izan zen; eta gainera beste 30.000 kilometro egin nituen, Ibiletxe zamaontzietan sartu eta nik motxilarekin mugitzeko aprobetxatzen nuen bitartean. Australian bakarrik 20.000 kilometro izan ziren. Aise esaten da!

Zergatik sentitu duzu munduari egin diozun lehen bira liburuan idatziz jasota uzteko beharra?

Kontrazalean diot inork ez digula eskatzen bidaiaria izatea. Baina ikusi, bizi eta batzuetan sufritu duguna ezagutzera emateko betebeharrak morala izan dut.



«Eurozentrismoa kentzea neukan buruan. Atzerrian zaudenean konturatzen zara inozoa dela. Adierazi nahi nuen inor ez dela beste inor baino gehiago. Laburbilduz, Europa desmitifikatu eta munduari 'ez gara zuek baino gehiago' esan nahi nion europarra naiz»

Ezbehar asko izan al dituzu?

Ibiletxe galdutzat jo nuen behin baino gehiagotan. Pakistanen, elurretan sartu nuen prest egon gabe, eta enbragea hautsi nuen. Abentura eta biziraupen bidaiak direnez, jabetzen zara zer gerta dakizukeen. Ibiletxe desagertzen bada, zer egingo diogu! Beste plan bat egin beharko da. Eskerrak, Ibeletxe bizirik atera zen.

Bai, baina ikara handiak izan zenituen, adibidez, Costa Ricako hondartza batean sartu eta itsasoak gora egin zenuenean.

Ilunabarrak zoragarriak dira leku guztietan, eta bereziki Costa Rican. Hondartza birjina batean nengoen, hutsik zegoen, eta pentsatu gabe esan nuen: "Aurrera!". Furgoneta hondarretan hondoratu zen, palmondo hosto artean. Argazkiak atera

nituen, eta kasu horietarako lagungarri zait euskal esaera zahar hau: "Gero gerokoa!". Aurreko gurpiletan bi katu jartzen hasi nintzen, baina asko jota metro erdi egin zuen aurrera. Nekez lortu nuen sei metro aurreratzea. Gaua zen eta marea gora zetorren. "Ibiletxe" zuhaitz batean lotzea pentsatu nuen. Karramarro asko pasatzen zitzaizkidan aurpegitik, gurpilak altxatzen etzanda nengoela. Operazio honetan zortzi ordu eman ondoren, salbatu ahal izan ginen. Baina txikituta amaitu nuen.

Munduan barrena egin zenuen lehen biran eta, geroago, Afrikako itzuliaren luzapenean, "Bost kontinenteak musikaren bidez" proiektua zeneukan. Zergatik interesatzen zitzazun munduko soinuak biltzea?



Musikari afizionatua naiz. Txistua, akordeoia eta haga-tronboia eraman nituen. Bidaiari kutsu musikal bat eman nahi nion, eta musika herrikoien artxibo bat egitea erabaki nuen. Grezia utzi nuenean uste nuen lan gehiena eginda zegoela. Baina nahastu egin nintzen, onena iristear baitzegoen; adibidez, Sirian, Fairuz abeslari libanoarrarekin topo egin nuen.

Europako kulturatik askatu nahi zenuen, zure baitan beste musika eta erritmo batzuk sartzeko?

Eurozentrismoa kentzea neukan buruan. Atzerrian zaudenean konturatzen zara inozoa eta ergela dela. Beste kultura batzuk errebindikatu nahi nituen, inor ez baita inor baino gehiago. Laburbilduz, Europa desmitifikatuko zuen europarra nintzen, munduari esateko "ez gara zuek baino gehiago".

Zer moduz ibili zinen Ameriketara?

Asian nahi nuen lekuan atseden hartzeko apartatzen nuen, baina Ameriketara ez zen gauza bera gertatzen, kontu handiz ibili behar izaten bainuen, eta horregatik bilatzen nituen gasolindegia, kamioi askoko lekuak, polizia etxeen ondoko tokiak, nahiz eta pentsatu okerragoa izan zitekeela batzuetan. Ez zidaten lapurretarik egin. Hala ere, Argentinan semaforo gorrietan ez gelditzeko aholkatu zidaten, osteko arriskua izaten da eta. Bai, Hego Amerika eta Erdialdeko Amerika oso gogorak dira, eta Ipar Amerikan... hai-zearen arabera! Adibidez, ez nuen arazorik izan Tijuana mugan igarotzeko, eta Kanadatik Estatu Batuetarako mugan, aldiz, dena erregistratu zidaten, errespeturik gabe; gauza ezdeus bat bezala tratatu ninduten.

“África, la madre olvidada y maltratada” liburuan 14 hilabete kontatzen dituzu, Ibiiletxerekin eginak, 2002ko zure Volkswagen Transporter furgoneta maitearekin. 32 herrialde zeharkatu zenituen 2007 eta 2009 artean. Zergatik ipini zenion izenburu hori liburuari?

Kontinente honi buruz dudak ustea laburbiltzen dut. Hantxe dago homo sapiens-aren jatorria. Gizon zuriak, XV. mendean hara iritsi zenean, ez zuen bere ama ezagutu, eta tratatu txarrak ematen aritu zen, aurrena esklaboak salerosketarekin, eta gero kolonizazioarekin. Bidaiak lur gainean egi-

Santakara pozik zegoen Pakistanen egin zituen lagun onengatik, Ibiiletxe furgonetaren barruan ateratako argazkian ikus daitekeenez. Behekoan, bazkaltzen, Saharako Errepublika Arabiarrean, Afrikan zehar eginiko itzulian.



ten ditudanez, berehala egiaztatu ahal izan dut. Esan ohi dut Afrikaren zorigaitzik handiena dela bere buruaren eta etorkizunaren jabe ez izatea.

Liburuaren hegalean idatzi duzu ez litzaizukeela bururatuko Afrikari bira egiteko inori aholkatzea.

Ni izan nintzen baldintzetan, etxera ez itzultzeko txartel guztiak edukitzea da. Nik okerrago egin ahal izan nuen, oso txarto, furgoneta behar bezala ez zegoelako. Aurreko trakziokoa da, gurpilak ez daude oso altu eta nahiko txikiak dira. Baina, tira, bihotzak eraman ninduen. Neure buruari esan nion “joan zaitez Afrikara”, eta joan egin nintzen.

Esperientzia izugarria da. Ia dena tropikala da, bi urtarorekin: bata euritsua eta bestea lehorra. Batzuetan errepideak ez dira existitzen eta lokaztu egiten zara. Kongon aurreko elur-kateak jarri nituen gurpiletan. Askotan galdutzat jo nuen Ibi-letxe.

Bestalde, kontu politikoa dago. Gobernu batzuek ez dute herrialde osoa kontrolatzen. Adibidez, Brazzaville Kongon armadaren kontrol bat pasatu nuen eta ez zidaten kobratu, baina 40 kilometrorra gerrillako beste bat zegoela ohartarazi zidaten. Hurbildu nintzenean, azeleratzailea zapaldu nuen eta metraileta eskuetan zutela laga nituen.

Bidaiari batek oihanean aurkitu nahi duen azken zer da?: gerrako haurrak. Niri tokatu zitzaidan, eta eskerrak handik onik atera ahal izan nuen. Dirua ordaintzea gutxienekoa izan zen. Bai, Afrika etengabeko abentura bat da, eta luzaroan izaten segituko du.

Kontatzen duzu zure bizitzan izan duzun is-tripu bakarra Tanzanian izan dela?

Lasai nindoan lurrezko bide batetik, eta bat-batean aurrez aurre zetorren automobil bat gainera bota zitzaidan; ezinezkoa izan zen saihestea. Ibi-letxe nahiko lur jota geratu zen. Atestatua egin nuenean, poliziek ziurtatu zidaten autoaren jabea pobrea zela eta ezin zidala matxura ordaindu. Baina behartsutik ez zeukan ezer; bi eskuak eratzunez beteta zeuzkan eta autoa ona zen. Baina, tira, ziur aski ez zuen segururik izango. Beraz, dena ordaindu behar izan nuen.

«Afrikara joan nintzen baldintzetan, etxera ez itzultzeko txartel guztiak nituen. Kamioneta ez zegoen behar bezala. Aurreko trakziokoa da, gurpilak ez daude oso altu eta nahiko txikiak dira. Baina, tira, bihotzak eraman ninduen. Neure buruari esan nion ‘joan Afrikara’, eta joan egin nintzen»

Dar es-Salam-eko tailerrera eraman nuen furgoneta. Lokal bitxia zen: egunez autoak konpon-tzen zituzten eta gauez jatetxe bihurtzen zen. Oroitzapen oso ona dut leku hartaz, patatak zuritzen eta oilasko oso gozoak prestatzen lagun-tzen bainien. Afrikako pentsamoldearekin eta bere bizimoduarekin bat egin beharra dago, eta segi aurrera!



MAR MENOR

Bigarren aukera bat





Askorentzat telebista espainiarreko saioengatik da ezaguna eskualdea, 80 eta 90eko hamarkadako lehiaketa programa batzuk “apartamentu bat La Mangan” saritzat izaten zutelako. Garai hartako desarrollismo turistikoak hondamendia ekarri zion Mar Menor barne-itsasoa ixten duen hareazko istmo luze eta estuari. Beste toki batzuek hobeto eutsi diote presio horri, horratik. Duela lau hamarkadako triskantzatik itzulian, bisitatzeko, txirringan ibiltzeko eta Mediterraneoaren zati berezi batez gozatzeko txokoa da Mar Menor inguruko kostaldea.

Testua eta Argazkiak **Urtzi URRUTIKOETXEA**

Benetan, aintzira handi bat da Mar Menor, ia guztiz itxita baitago; pasabide estu batek lotzen du Mediterraneoarekin, eta batetik bestera bost graduko aldea egon daiteke uraren tenperaturan. Bertako urak daukan mineral kontzentrazio handiak osasun-turismoa bultzatu zuen duela ehun urte baino gehiago; XX. mendearen hasieran iristen hasi baitziren lehen turistak. Santiago de la Ribera eta Los Alcázares herrietako hoteletan egon ohi ziren; oraindik ere egurrezko kai eta moila politek gogorarazten dute garai hura.

“Munduak gutxi galduko luke istmo guztia egun batean kontinentetik askatu eta urrunduko balitz”, idatzi zuten gidaliburu ezagun batean duela urte batzuk, La Mangan urteetan eraikitako turismora eraikin altuak dirrela-eta. Ezin uka, hareazko zerrenda luze honetan porlanak egindako txikizioa handia izan dela. Baina irudimen pixka batekin, edo oso noizean behin ageri diren gunen naturalei erreparatuta, hondartza txiki atseginak ere ageri dira, penintsularen iparraldean bereziki.

La Mangak 22 kilometro ditu Cabo de Palos arrantzale herriaren eta penintsularen amaieraren artean. Tarte batzuetan 100 metro zabal da doi-doi bi itsasoen artean, beste batzuetan kilometrorainoko zabalera har dezake.



La Mangak 22 kilometro ditu Cabo de Palos arrantzale-herriaren eta penintsularen amaieran dagoen Collados hondartzaren artean. Tarte batzuetan 100 metro zabal da doi-doi bi itsasoen artean, beste batzuetan kilometro baterainoko zabalera har dezake. Errepide luze bat dauka erdian funtsean, eta eraikuntza turistikoak bi aldeetara zatirik handienez. Errepide guztiaren aldamenen bizikletentzako bidea dago, aukera ona da sasoi batzuetan egoten den trafikoa kontuan izanda. Bidean, porlanetik salbatutako bizpahiru leku-interesgarri ere aurki daitezke: Cala del Pino da Mar Menor-era ematen duten hondartzetan atseginena, hareatzaz gain pinudi bat ere badauka, eta zenbait mahai picnicean joateko. Inguruan, Mar Menorreko begiralekua ere badago, eskualdea altueratik begiratzeko, zer izan zen irudikatu, eta egun zertan den.

Bidean aurreraxeago eginda, baina, Puente del Estacio-tik aurrera, askoz eraikuntza gutxiago daude, eta Mediterraneo aldeko hondartza luzeaz goza liteke. Penintsularen amaieraraino joateko, “Puente de la Risa” izeneko zubi bitxia dago. La Manga eten egiten da hor, inoiz beste aldearekin lotzeko zubi bati buruz hitz egin den arren, erabat desberdina da paduretatik haratago ageri den ikuspegia.



NATURAGUNEAK Izan ere, Mar Menorreko gainerako kostaldeak, mendebaldera hedatzen den lurraldeak La Mangaren luzeraren bikoitza dauka. Tartean badira herri eta konplexu turistikoak, baina baita eremu naturalak eta oinez zein bizikletaz egiteko ibilbide ugari ere. Udan bero handia egin ohi du, eta goizean goiz egitea komeni da, udaberri zein udazkenean oso leku atsegina da txirringa-txangoak egiteko

La Mangako muturraren beste aldean, La Llanako hondartza luzean esaterako, bizikletentzako ibilbide ugari daude. San Pedro de Pinarterreko lokatz-bainuak hartzera datozenetako bisitarik askok egiten dute bideo horietako bat, gatzagen ondotik flamenkoei begira, eta hondartzaraino doazen bideei segika, San Pedroko parke naturalaz gozatzen. Hondartzako dunei segika, itsas portuari jarraika, Murtzia eta Valentziako Herrialdearen arteko mugaraino irits daiteke erraz.

Mar Menorreko kostaldean aurrera jarraituta, berriz, Santiago de la Ribetatik txalupa bat har daiteke Isla Perdiguera; Mar Menorren dauden bost uharteetako bat da. Los Alcazares ere herri atsegina da urtean zehar, La Mangako jendetzatik urrun, baina udan zehar turista asko datoz hona

La Manga 20 kilometro baino gehiagoko istmoa da. Porlanak txikizio handia eginda ere, Mar Menorrek baditu bestelako txoko interesgarri asko. Adibidez, lerroon gainean, ezkerrean, Cabo de Palos, La Mangako sarreran dagoena, leku atsegina eta arrantzale herria. Inguruan kala eder ugari daude. Mar Menorrekoa ia erabat itxitako itsasoa da, eta Mediterraneokoa baino beroago dago ura. San Pedro de Pinarterreko aintziran flamenkoak egon ohi dira.



ere, neguko zortzi mila biztanleen lekuan 100 mila baino gehiago egoten dira.

MEDITERRANEOKO KALAK Herririk atseginenetako bat, paradoxi-koki, La Mangatik gertuen dagoena da. Cabo de Palos istmoa kontinen-tearekin lotzen den lekuan dago, hegoaldeko muturrean. Turismo masiborako gainerako lekuen aldean, herriak arrantzale nortasunari eutsi dio, eta oso leku atsegina da ilunabarrean paseatzera edo afaltzera joateko, faroaren argipean edo itsas moilatik paseoan. Behin bertan, “arroz al caldero” eskualdeko platera gozatzeko lekua da; tomatea, bera-katza, arroza, noski eta arraina darama, eta “caldero” edo pertzetan pres-tatu ohi da

Herrian eguzkiak berde bereziz margotzen du itsasoa Cabo de Paloseko kala ugarietan, bai herrian bertan dauden txokoetan (Cala del Muerto, Cala del Canto Colorado edo Cala Major), zein kanpoaldean (Cala Reona, Cala Flores). Mediterraneoan ekialderantz, berriz, Islas Hormigas uharte txikiak babestutako naturagunea dira, eta urpekaritzan jarduteko txoko parega-beak dituzte.

Mediterraneoko kostaldetik hiruzpalau kilometrora, eraikuntza eta porla-nak hondatu gabeko lekuri bikainenetakoa da parke natural bihurtutako Calblanqueko hondartza. Dunak eta eraikuntzarik gabeko hondartzak ugari daude inguruan, Mar Menorreko masifikaziotik urrundu nahi izanez gero... baina ezin esan leku sekretua denik, udan batez ere jende asko etorri ohi da hondartzara eta aparkalekua bete liteke; hobe bizikletaz edo auto-busez etortzea.

HISTORIAREKIN HITZORDUA Eskualde zabala izanda ere, Mar Meno-rreko herriek ez dute berez udalerririk. San Javierri dagokio La Mangari zati bat, eta beste Cartagenako udalaren menpeko eremua da. Izan ere, hiri historikoa oso gertu dago. Cartagenako portu naturalean sortutako lehen asentamendua K.a. 223an eraiki zuten kartagotarrek, eta Quart Hadas (Hiri Berria) deitu zioten. Handik hamalau urtera konkistatu zuten erromata-rrek, eta Carthago Nova izena eman zioten. Erdi Aroko gainbehera XVIII. mendean eten zen, itsas basea eraiki zenean.

Cartagenako gazteluaren hondakinen inguruan parke bat dago, eta berta-tik erromatar antzoki ikusgarriaren ikuspegi paregabean dago. Erromatar eta kartagotar ondarearen arrasto gehiagoren bila joateko, Itsas Arkeolo-giaren Museoa dago; erromatar garaiko kale bat, eta VI. mendeko Bizan-tziar Harresia ere aurkitu dira hirian egindako indusketetan. Hiriko kale nagusian berriz, Kale Nagusian etxe dotoreak daude, balkoi nabarmenekin udako ilunabarretan jendez betetzen da itzaletan terrazetan egoteko. Car-tagenako Udaletxea kalearen amaieran dago.

Cartagena inguruetan harrizko hondartza txiki batzuk daude Cabo Tiño-sora bidean. Segidan Mazarrongo portua dator, haren inguruan ere ha-reazko hondartza ugari daude. Bidean Costa Cálida edo Kostalde Beroko herriak eta hondartzak datoz, Aguilas herrian Andaluziako mugara iritsi arte.

GIDA PRAKTIKOA

NOLA HELDU

San Javier aireportuak, Cartagena eta Murtzia hirien artean. Loitutik hegaldiak hartu ohi ditu. Autobusez ere joan liteke, baina 12 ordu baino gehiagoko bidea da Hegoaldeko hiriburuetatik. AVE Espainiako Abiadura Handiko Trena Murtziaraino iristen da; 2024 hasierarako iragarrita dago Cartagenara iritsiera.

Gainerakoan, 700-800 kilometroko bidea da Euskal Herritik; Aragoitik eta Valentziatik joan liteke, edo Gaztelan barna Madril igarota.

NOLA MUGITU

La Mangan, Mar Menorreko herrietan eta Cartagenan ez da falta autobus zerbitzurik, eta turismo gehieneko sasoietan aparkatzeko egoten diren arazoak kontuan izanda, aukera ona da. Bizikletaz ibiltzeko ere guztiz eskualde laua da Mar Menor inguruko itsasertza, bidegorri asko daude eta autoek ibiltzerik ez duten gatzaga eta paduretako bide askotatik ibiltzeko aukera ematen du.

OSTATUA

Turismoak erabat bereganatutako eremua da La Manga, baina udako denboraldi garaian gerta liteke hotelak betetzea eta prezioek gora egitea. Eskualdeko gainerako herrietan ere badago ostatu hartzeko aukera, hotel, apartamentu zein kanpinetan.

GR-11

Nafar Pirinioko zaina







GR-11 zeharkaldiak Pirinioetako bi muturrak lotzen ditu: Cap de Creus Gironan, eta Higer lurmuturra Gipuzkoan, Hondarribian. 900 kilometro luze eta gogor. Zeharkaldiak sei etapa ditu Euskal Herrian, bost Nafarroan, eta horietatik lau Pirinioetako bihotzean, ariman barrena: Izaban hasi eta Elizondon bukatu. Zeharkaldia da, ez du mendi handirik igotzen, baina 100 kilometro pasako ahalegina da, eta 5.000 metroko goranzko desnibel metatua. Bidea garbia da, ezinezkoa da galtzea, eta mapak oso aberatsak. Pazientzia apur eta kemena, ez da gauza gehiago behar.

Testua eta argazkiak **Andoni URBISTONDO**

Normalean ekialdetik mendebaldera egiten da Pirinioetako zeharkaldia. Alegia, Euskal Herrian hasi eta Katalunian bukatu. Mapak eta ibilbideak ere zentzu horretan egiteko osatuta daude, baina kontrako zentzuan ere egin daitezke etapak. 43 dira denera, eta 900 kilometro pasa. Ez dira asko izango zeharkaldi osoa ekinaldi bakarrean bukatu dutenak. Batez ere etapak oso gogorrek direlako.

Erreportaje honetan Izaba eta Elizondo arteko bidea azaltzen da, lau etapatan egindakoa. Atariko zenbakiak halako duda, zalantza sortzen dute, gordinak baitira. 21, 23, 27 eta 29 kilometroko etapak, bata bestearen atzetik. Desnibel metatua ere serioa da: 5.000 metro pasa gorantz, eta 5.600 maldan behera. Beherantz baino gorantz hobeto moldatzen bazarete, egin kontu datu horri.

Nafar Pirinioko zaina, autobidea zeharkatzeko garai egokia uda da. Zeharkaldiak zati handi bat 1.000 metrotik gora egiten du, eta paraje horietan zaila da beroak sobera erretzea. Gauetan, gainera, freskatu egiten du, atsedena errazteko. Martxo-apiril aldera ere egin daiteke, lasai asko. Elur matuaren batzuk izan ditzakezu, edo elur belazeren bat zapaldu, baina urduritzeko arrazoirik ez. Nafarroan, eta Izabatik mendebaldera, 1.450 metrora igotzen da gehienez GR-11 bidea. Garai horretan izan dezakezun arazo handiena ostatua aurkitzea da. Erronkarin neguko eski kanpaina betean murgilduta daude, eta bailarako ostatu eta aterpe gehienak lepo beteta



Erreportajea abiatzen duen orrian, Pirinioetako ikuspegia, Abodi mendikatera bidean. Eskuin-eskuinean Ezkaurre ikusten da, eta atzean Alano mendikatea. Haren ezkerrean Atxer Gaztelua. Aurreko orrian, ezkerreko orrian, goiko argazkian, Baztango mendi gainetan, urrun Artzamendi eta Atxuria ikusten direla. Behean, Orbara eta Auritz bitarteko tarte bat, pago basoan. Orri honetan, ezkerrean, Otsagabia herria, Zaraitzu bailaran, eta ondoan Orhi mendia, Aboditik. Mendebaldetik ekialdera 2.000 metroko langa gainditzen duen lehen tontorra da Orhi (2.017 metro).

daude ikasleekin. Zaraitzu bailaran ere atsedena hartzen dute urteko lehen hiruhilekoan, martxotik abendura bitarte Iratiko oihanak erakartzen duen bisitari kopuru handiaren ondorioz.

Izaba Nafar Pirinioko herri bisitatuena da. Mendi garaianak handik daude gertuen, eta jendea trumilka bertaratzen da Erronkari bailarako herrixka xarmanta horretara. Zerbitzuz aberats da, harrizko kalez dotore, eta mendiz ikusgarri. Urzainkitik joanez gero, herri sarreran hasten da GR-II, suhiltzaileen aparkalekutik gertu. Izaba eta Otsagabia lotzen ditu lehen etapak. 21 kilometro hasteko. Mapak begiratuta ez dirudi gogorregia: igoera luze bat, eta jaitsiera luze bat. Igoera Idoia ermitan barrena egiten da, Izabako zaindaria. Eraikin ederra da benetan. Handik gora, eta bi orduko martxan Saitsederra lepora iristen zara, pago zuhaitz erraldoi artean.

10-12 kiloko motxila bizkarrean, lehen estutua ematen zaio gorputzari, eta aldapa bukatuta elurra eta 0 graduko tenperatura topatzen baduzu, ibilera zaildu egiten da franko. Eguna lainotua da, eta Pirinioko tontor garaianak ezkutuan. Peñablanca da ikusten den bakarretakoa, zuri-zuri (Kakueta ere esaten diote). Millingrate leporaino egiten da bidea zoru belartsuan, eta gero pista zatar samarra hartu behar da. Zatarra, bertatik egin behar delako bide osoa Otsagabiraino. GR-II edo zeharkaldi luzeek hori dute gabezia bakar: pista zabaletatik egiten dela bidea, ibiltarien nekea arintzeko.

Muskildako Ama Birjinak esaten dio mendizaleari Otsagabia gertu dagoela. Egunen joan-etorrian jabetzen da pertsona Muskilda leku askotatik ikusten dela, eta dotore benetan. Muskilda Otsagabiko zaindaria da, eta Zaraitzu bailarako emakume askok izen hori dute, zaindariaren ohorez.

Muskilda bigarren etapa hasieran bisitatzen da, Otsagabitik ordu erdi pasatxora oinez. Eraikuntza dotorea da oso, eta antzina babes gune estrategikoa paraje hauetan barrena ibiltzen zen ororentzat.

Bideak Abodi mendikaterantz egiten du, iparrera garbi. Abodi Pirinioetako behatoki onenetakoa izango da, onena ez bada. Mendikate belartsua da, aziendaren bazka toki ikusgarria, iparrera Iratiko oihana eta Orhi mendia dituen. Mendebaldetik etorrira 2.000 metroko langa gainditzen duen lehen mendia da Orhi (2.017 metro). Hura zuri-zuri ikusteak halako inpresio berezia sorten du, eta haren ekialdera dauden beste tontorrei begira, denboraren nozioa galtzen du bisitariak: Anie edo Auñamendi, Hiru Erregeen Mahaia, Petretxema, Ezkaurre... Bata bestearen atzetik agertzen dira harro-harro. Irati filmeko gaztelua Abodin kokatu zuen Paul Urkixo zuzendariak, filma ikusi baduzue argazki dotore hori gogoan izango duzue.

Zer esan Iratiko oihanari buruz. Euskal Herriko altxor, Europako bigarren oihan handiena, Alemaniako Oihan Beltzaren ondoren. 17.000 hektareako paradisu berdea. Tira, edo marroia, hori-gorri kolorekoa udazkenean. Tapla gainean hartzen da Abodi mendebaldeko mendikateko bidea, Berrendi harkaitz elegantearen bila. Ollokiate lepoa bilatu behar da, Aezkoako Hiri-berri herrixkara jaisteko, eta nekea agerikoa da eguneko azken orduetan. Hainbesterako, gauak eguna jan digula ia-ia Hiriberrira iristeko. Zortzi ordu eta erdi egin ditugu ibiltzen, geltokiekin hamar pasa. Txikituta gaude, baina herriko Berrendi tabernan eman diguten afari oparoak neke guztiak apaldu ditu.

AZKEN BI ETAPAK, ZAILENAK Hanka zuztarrak oihuka daude goizean, oinetakoak jantzi eta berehala. Hirugarren etapak 27 kilometro ditu, eta burua makurtuta ekin diogu Orbara herrixkarantz, Berrendi agurtzea ahaztuta. Ortzanhurieta, Urkulu eta beste menditarretatik hegora gabiltza. 17 kilometro egin ditugu Auritzera iristeko, baina beste 10 geratzen zaizkigu eguna bukatzeko, Sorogain aterpean, Erroibarren dagoeneko. Ez nolanahikoak, gainera, Mendiaundi tontorretik pasatzen baita GR-II bidea, 1.215 metroko mendia. Handik Sorogaineraino dena da beherantz, baina oin zolak justu daukazunean beherantz ere sufritu egiten da. Hamar orduko beste jardunaldi bat, eta hanka zuztarrak ezinean...

Laugarren eguna ere eguzkitsu jaiki da, aurreko biak bezala. Sorogainen ere ederki zaindu gaituzte. 29 kilometroko etapa amaigabea dugu aurretik, azken zortziak behera eta behera. Gorputza, eta burua muga-mugan daude, baina abiatu egin behar da, bai edo bai. Odiako basoan gozoa da bidea, Aratun lepoan eta Urkiaga mendateraino bezala. Han bunker mordoa dago, Pirinioak atzerriko soldaduen erasoetatik babesteko eraiki zen defentsa lerroa, Francoren aginduz, eta askok bere horretan diraute. Urkiagatik Baztango mendietara igotzen da, eta gero postrea: 1.000 metroko jaitsiera bukaezina Elizondoraino, kilometro asko pistan barrena.

Elizondon atsedena. Bakea. Arnasa. Esperientzia aberasgarria bezain gogorra, eta gorputza oso zukututa. GR-IIa ederra da, bakartia, eta gero eta hornituago ostatu kontuei dagokienez. Sasoi puntu ona behar da, sobera ez sufritzeko, eta egiteko asmoa baduzu, ondo prestatu.

GIDA PRAKTIKOA

KOKAPENA

GR-II zeharkaldiak bost etapa ditu Nafarroan, beste bat Gipuzkoan, sei Euskal Herrian denera. Lau etapetako zeharkaldia du ardatz erreportaje honek. Izaban hasi, Erronkarin, eta Elizondon bukatu, Baztanen, ekialdetik mendebaldera.

NOLA IRITSI

Izabara joateko Pirinioetako A-10 autobidea hartu behar da, Iruñea-Jaka errepidea, eta Irunberrin Nabaskoze eta Burgi aldera joan. Handik Izabara. Ipar Euskal Herritik San Martingo harrian barrena irits daiteke Izabara.

EZAUGARRIAK

GR-II zeharkaldiak Pirinioak zeharkatzen ditu mendebalde-ekialde norabidean. 900 kilometroko bide luzea da, eta 43 etapetan egiteko prestatua. Mapak, ibilbideak eta beste, nahi beste informazio dago, eta bideak ezin hobeto markatuta daude seinaleztapen zuri-gorriarekin. Nafarroako zatia exigentea da fisikoki, 100 kilometro pasa egiten baitira lau egunetan, 5.000 metroko desnibel metatua gaindituz. Garairik egokiena uda da, baina udaberrian ere egin daiteke. Ostatuak garaiz gorde, GR-IIk, Iratiko Oihanak edo Donejakue bideak milaka bisitari erakartzen baititu paraje horietara.

ALLOTZEKO URTEGIA

Nafarroak ere badu hondartza



Testua: **Nagore BELASTEGI** Argazkiak: **Jagoba MANTEROLA / FOKU**

Windsurfa, paddle surfa eta bela ez dira itsasoko kirolak soilik. Izan ere, marea eta olatuetatik urrun horietan trebatzea errazagoa da. Horretarako aukera ematen du Allotzeko urtegiak, Lizarratik kilometro gutxira, udan nafarren hondartza bilakatzen denak.





Ez da ezinbestekoa itsasotik gertu bizitzea hondartzaz gozatzeko. Izan ere, Nafarroak badu Euskal Herriko hondartzarik ederrenetako bat, Karibearekin alderatu daitekeena eguzkiak gogor jotzen duenean duen ur turkesagatik. Arabarrek Garaïora jotzen duten bezala, nafarrak Lizarratik 15 minutura, Deierri eta Gesalatz udalerrien artean, dagoen urtegi honetara joan daitezke egun beroetan freskatzera edota ur kirolez gozatzera. Izan ere, kirolen bat egin nahi izanez gero, Allotzen bertan ikastaroak ematen dituzte, eta materiala alokatu daiteke, norberak eraman ezean. 1930ean eraiki zuten, 930 hektarea ditu eta 84 hektometro kubiko ur pilatu ditzake. Iazko bero boladan oasi modukoa izan zen askorentzat, lehortearen ondorioz ura ez xahutzeko eskatu zutenean urtegi hau zelako freskatzeko biderik errazena.

Nafarroako urtegirik garrantzitsuenetakoa da uraren kalitateagatik. Urtegia oso handia izanik jarduera desberdinak aldi berean egitea ahalbidetzen du –bela, windsurfa, pedalontziak, piraguismoa, paddle surfa, arrantza eta parapentea–, eta bainurako bi gune prestatu dituzte: Leraten eta Ugarren. Goi-denboraldian, prestatutako gune horietan dauden aparkalekuetara sartzeko erreserba aurrez egitea ezinbestekoa da, autoa ezin baita edonon utzi eta horrela lekua izango duzula ziurtatzen duzu. Gainera, prezio sinbolikoa da; Iruñeko Gaztelu plazako parkingean ordu erdiz autoa uztean ordaintzen denaren truke egun osoa igaro daiteke Allotzen, 1,50 eta 3,50 euro arteko prezioa baitu. Jende kopurua nolabait kontrolatzeko kobratzen dute, debekatuta baitago autoa parking berezi horietatik kanpo uztea, eta doan izango balitz edonon aparkatuko luketelako bisitariek. Aparkalekuen ordutegia 9.00etatik 21.00etara artekoa da, eta egun osoz edo ordu batzuz erreserba daitezke.



Horrez gain, egun ederra igarotzeko zerbitzuak dituzte hondartzek, hala nola komunak, dutxak, itzalkinak eta mahaia. Leraten, gainera, parkea eta taberna daude, inguru hau baita jende gehien erakartzen duena. Leraten dago, hain zuzen, Nafarroako Bela Eskola, Aritzaleku kanpinaren alboan, eta hor kontratatu daitezke bestelako kiroletarako ikastaroak ere. Ura bare egoten den arren, haizeak gogor jo ohi du, eta horregatik da leku aproposa hainbat kirolean trebatzeko, itsasoko arriskuetatik urrun.

Allotzen beste balio garrantzitsu bat zaindutako ekosistema duela da. Izan ere, azken urteetan saiakera handiak egin dira ingurunea zaintzeko eta bisitariek hura errespetatu dezaten. Inguruari buruzko informazio guztiak ere badaude hondartzetan, eta turismo bulegoko langileak bertan egoten dira bisitariari gomendioak eta azalpenak ematen, urtegia nola zaindu jakin dezaten.

Eguraldi onak bainu bat hartzera bultzatzen duenez sasoi jendetsuena uda den arren, urte osoan bisita daiteke urtegia naturagune hau ezagutzeko. Izan ere, oinez ibiltzea gustuko dutenentzat ere aproposa da; urtegia osorik inguratu daiteke Lerate eta Ugar bailaretatik igaroz eta inguruan dauden herri txikiak ezagutuz. Udazkenean zainzuri soro eta mahastiek edertutako paisaia koloretsuak aurkituko ditugu.

Gertu dagoen Iturgoienara joanez gero, Trinitateko basilizara igo daiteke, eta bertatik irudi panoramiko ederraz gozatu. Allotz eta Lekar herriak batzen dituen errepidetik joanez gero, berriz, Egiarteko Andre Mariaren eliza erromanikoa dago, Deierri Ibarreko altxorretako bat, magiaz eta misterioz betea, Hirugarren Karlistaldiko Lakarko guduaren lekuko izan zena.

Allotzeko urtegiak askotariko jarduerak egin daitezkeen arren, urarekin loturikoak dira nagusiak. Irudietan ikus daitezke Nafarroako Bela Eskolako ikasleak, bisitari bat mahaian atseden hartzen, beste batzuk belaontzi batean paseo atsegin bat ematen, bainu bat hartzen eta paddle surfean aritzen.



Fantasiaz beteko dira Alondegiko pantailak

MAIATZAK 5-13

Bilboko Zinema Fantastikoak 29. edizioa Campos Eliseos Antzokian egingo den galarekin hasiko du. Ekitaldia Alex Gerediaga zuzendari eszeniko bilbotarrak zuzenduko du. Ondoren, Sail Ofizialeko hamaika euskal film laburrak proiektatuko dira aretoan.

Lehiaketako Sail Ofizialean programazio anitza eta askotarikoa du FANTek. Hautaketan, hamazazpi film izango dira. Film laburrek ere pisu handia izango dute jaialdia- ren programazioan, 30 proposamen guztira.

Maiatzaren 12an, ostirala, itxiera ekitaldia egingo da BBK Aretoan, eta bertan FANTeko Izarra saria jasoko du Belen Rueda aktoreak (“El Orfanato”, “Los Ojos de Julia”).

FANTROBIA Saria ere banatuko du jaiadiak aurtengo edizioan. Saria Carlota Peredak jasoko du, “Cerdita” thriller- raren zuzendariak. Sari hauez gain, aurten Ohorezko FANT sariak ere banatuko dira: Zorion Eguileor, ibilbide oparoa duen euskal aktore, musikari eta esataria, eza- guna, besteak beste, “Ilargi guztiak” edo “El Hoyo” fil- mengatik. Gainera, “Viejos” filma aurtengo Sail Ofizialean lehiatuko da. Eta Paco Plaza, “[REC]”, “Veró- nica” edo “Quien a hierro mata”-ren zuzendaria.

Halaber, ziklo bat eskainiko zaio H.G. Wellsen elebe- rriko pertsonaia eta aurtengo karte- leko protagonista den Gizon Ikusezinari, FANT Ikustezina. Eta Fantastikoaren Maisuak atalean, Dan O’Bannonek sinatutako filmak iku- siko dira: “Lifeforce”, “Alien, El Octavo Pasajero” –gidoia idatzi zuen– eta “El Regreso de los Muertos Vivientes”.



“PAISAJEROS”, HOGEI BIDAIA TRENEZ

Norvegiatik Patagoniara eta Canfranc-etik Madagaskarrera, India, AEBetako mendebaldeko kostaldea, Iran eta Uzbekistan ere zeharkatuz... "Paisajeros" kronika-liburu ezin hobe da, bidaia-literatura onenaren eskutik, mundua ezagutzeko esperientzia barneratzeko.

Trena garraiobide bikaina da planetako gunerik ezezagunenetan sartzeko eta beste bizimodu batzuk ezagutzeko. Eta errailetatik, Pablo Zulaikak pertsonaien erretratuak, tren-ibilbideen xehetasunak eta bidaiari-narratzaile bikain baten esperientzia pertsonala nahasten ditu, irakurleari munduko txoko liluragarrienetako batzuen atmosfera eta paisaiak uztartzen dituzten postal zirraragarriak oparitzeko.

Paisajeros, veinte viajes en tren y sus protagonistas
Pablo Zulaica Parra
GeoPlaneta, 2019
496 orrialde. Gaztelania



Balenciagaren lan prozesua Getarian

MARTXOAK 29-MAIATZAK 21

Jantziena ez, marrazkien erakusketa zabaldu du Getariako Balenciaga Museoak. Euskadiko Artxibo Historikoaren Riva dokumentu funtsaren erakusgarri da,

8.000 erreferentzia baino gehiagorekin. Lakuak 2022an erosi zion funtsa Lorenzo Riva italiar diseinatzaileari. Hark kontserbatzen zituen dokumentuok, 1980ko hamarkadaren hasieran markaren zuzendari sortzailea izan ondoren. Zenbait dokumentu pribatu eta diseinatzaileak eskuz idatzitako ohar ugari bildu dira. «Agerian uzten dute jostunak etengabeko inplikazioa izan zuela prozesu osoan», adierazi dute Getariako museokoek.

XXX. Argazki Bilera abian Zarautzen

APIRILAK 4-UZTAILAK 2

XXX. Argazki Bilerak ateak zabalik ditu Zarautzen. Erika Ederen lanak daude eskegita Photomuseum-en –bera da antolatzailea– maiatzaren 21era arte. Data bera du Torre Luzean ikusgai jarri den Pio Guerendainen erakusketak. Horrekin batera aspaldiko irudiak aurkituko ditu bisitariak Sanz Enean hilaren 28a bitarte. Eta Argazki Bilera osatuz, Justy Garcaren erakusketa uztailaren 2ra arte ikus daiteke Photomuseum-en.

Umorea nagusi, Leioako kaleetan

MAIATZAK 18-21

Kalean aritzearen aldeko apustua eginguten duten konpainien erakusleio bihurtu da Leioako Umore Azoka, eta gero eta gehiago dira beren lanak lehen aldiz erakusteko azoka aukeratzuten duten konpainiak, izan Euskal Herrikoak, izan nazioartekoak. Denera 17 dira parte hartuko duten bertako taldeak. Kanpokoak 22 dira.

Kaleko emanaldiez gain izango da besterik: hitzaldiak, jardunaldiak, liburu aurkezpenak...

BERLIN

Historiaren lekuko

Testua: **Ibai AZPARREN** Argazkiak: **Getty Images**



**Ia erabat eraitsita geratu zen, Alemaniak
Bigarren Mundu Gerran izandako
porrotaren ondorioz. Egun, ordea,
Berlingo kaleetan historia arnasten da,
arrasto komunistak arkitekturan irauten
du eta artea, abangoardia eta modernitatea
elkarrekin bizi dira. Teknoaren munduko
hiriburuan pub eta diskoteka exotikoak
aurkituko ditugu turismo egun luze bat
garagardo pinta batekin amaitzeko.**





Hiru egun besterik ez ditugu, baina nahikoa dira gainerako herrialdearekin zerikusi gutxi duen hiri paregabe honetan barneratzeko. Berlinek ostatu merkeak eskaintzen ditu, garaiz erreserbatuz gero. Iritsi orduko, Brandenburgoko ateak egin digu ongietorria, 1791n inauguratu zenetik hiriaren historia zurrumbilotsuaren lekuko izan denak. Iparraldean Reichstag eraikina dago, Alemaniako Parlamentua (Bundestag) hartzen duena. Kupula bisitatzeko doakoa da, baina aurretik erreserbatu behar da. Ondoan, Eraildako Europako Juduen aldeko monumentua, nazismoaren ankerkeriak gogorarazten dituena. Historiarekin hasi eta amaituko da bidaia.

Hotz egiten du, baina pasieran ibiltzea ezinbestekoa da hiria ezagutzeko. Berlin hiri zabala bada ere, bere interesgune gehienak Mitte auzoan daude, baita Prenzlauer Berg-en eta Kreuzberg-en ere. Azken horri “turkiarren auzoa” esaten diote; Berlingo hego-ekialdean dago, eta artelanez apaintzen dituzte eraikin askoren fatxadak.

East Side Gallery bisitatzeko has daiteke ibilbidea, Berlingo harresiaren ekialdeko aldean. Beste inon baino hobeto laburbiltzen dute harresiaren zatiek hiriak izan duen bilakaera, eta derrigorrezkoa da bisitatzeko Berlinen gertatu diren aldaketa historikoak ulertzeko.





Erreportajea abiatzen duen argazkian, Berlingo irudi panoramikoa, non Alexanderplatzeko telebista dorrea ikus daitekeen. Lerroon gainean, Alemaniako Errepublikako Demokratikoaren ikurra, Checkpoint Charlie-ren ondoko etxe batean. Ondoren, katedralaren eta Museoen Uhartearen irudia, eta diskoteka gune bat. Eskuinean, Brandeburgoko atea.

Gertu dago Bethanien. XIX. mendearen erdialdean sorturiko ospitalea izan zen; orain erakunde kultural, artistiko eta sozialen egoitza da, baita ekimen auto-gestionatuena ere. Clash taberna ere Kreuzberg auzoan dago, leku bitxi alternatiboa, non pinta batzuk hartzera joan eta ikurrinak ere aurkituko ditugun.

Teknoaren munduko hiriburu izanik, Berlinen ehunka pub eta diskoteka daude. Klub batzuetan, egiten den ekitaldiaren arabera, era espezifiko batean jantzita joatea eskatzen da, eta diskoteka askotan atezainek nor sartuko den eta nor ez erabakitzen dute, aurrez ezarritako irizpide argirik gabe. Ez da komeni talde oso handi edo zaratatsuetan joatea.

Nahitaezkoa da Spree ibaiko pasealekuan ibiltzea, ikuspegi paregabeak eskaintzen baititu. Hor dago Museoen Uhartea, bost museo biltzen dituen eraikina. Denbora gutxi baduzu, bidaiatu Ekialde Ertainera Pergamo Museoa eta aurkitu Nefertiti Museo Berriko 8.000 metro karratuetan.

Bigarren Mundu Gerrara itzulita, Sachsenhausengo kontzentrazio-esparrua bisitatu genuen, hirigunetik abiatzen den trena hartuta. Preso komunista, judu, ijito edo homosexualak hartu zituen, guztiak ere SSei erabilitako saraski-teknika masiboen biktimak. Historiaren orbainak hiri osoan ikusten dira. Guk zerumuga gainean altxatzen den Alexanderplatzeko telebista dorrean amaitu genuen. Hor eta Checkpoint Charly-n Sobietar Batasuneko eta DDR-ko intsigniak dituzten kapelak eros daitezke.

HIRI DEBEKATUA, PEKINGO BESTE ALT XORRA

Turista talde txiki bat Pekingo Hiri Debekatua bisitatzen. Dinastien agintaldian, 1368tik 1911ra, enperadorearen zuzeneko senideak, zaindaria eta eunukoak ziren sar zitezkeen pertsona bakarrak. Hiritarrek erabat debekatuta zeukaten jauregira sartzea, eta inor saiatu eta aurkituz gero, exekutatu egiten zuten.

1924an, Feng buru zuen estatu kolpearen ondorioz, Puyi azken enperadoreak gaztelua utzi behar izan zuen. Urtebetera, publikoari irekitako museo kultural eta historiko gisa funtzionatzen hasi zen. UNESCOk Gizateriaren Ondare izendatu zuen 1987an, hobekien kontserbatutako eta munduko zurezko eraikinik zaharrenetakoa delako. GETTY



VITTORIO EMANUELE II, HORIZ MARGOTUTA

Vittorio Emanuele II.aren zaldi estatua, Milango erdialdeko Piazza Duomo-n dagoena, pintura horiz estalita dago oraindik, Ultima Generazione-ko aktibista ekologistek klima aldatzeko buruz kontzientziatzeko eginiko ekintzaren ondoren.

«Oraindik milaka milioi esleitzen zaizkio erregai fosilen industriari, gure lurraldeak babesteko zentimoak baino iristen ez diren bitartean». Hori da haien sareetan partekatu zuten erreklamoak, margotzearen bideoarekin batera, indarkeriarik gabeko desobedientzia zibileko kanpainen erdian. Gabriel BOUYS



KALIFORNIAKO SUPERLORATZE AREN BILA

Tirolina praktikatzen Kaliforniako Skull Canyon Ziplineseko basa-loreen gainloratze batean. Historikoki hezea izan den neguaren ondoren, turistak estatuko parkeetara mobilizatu dira superloratze ikusgarri baten bila.

Ekaitz indartsuen multzo batek euri eta elur kopuru errekorra ekarri zuen Kaliforniara, erreserbak bete zituen, estatuko hiru urteko lehortearekin ia amaitu zuena eta baldintza ezin hobeak ezarri zituen lurrian milioika hazi ezkutu loratzeko. Botanikariek diote maiatzera arte iraungo duela paisaia ikusgarri honek, eta toki batzuetan orain loratzen hasi dira. *Frederic J. BROWN*



PAROS UHARTEKO LEHENENGO TURISTAK

Turistak Naoussa herri arrantzalean paseatzen, Paros uhartearen. Grezian turismo denboraldia hasi da, eta uharte bitxi honetara lehenengo bisitariak iritsi dira dagoeneko. Turismoari dagokionez, herrialdea markak haustear dago, baina horretarako abian jarritako eraikuntza masiboak kezka sortu du herritarren artean. *Louisa GOULIAMAKI*



KOLORADOKO ESKIA ETA ELURRA, UDARA ARTE

Arapahoe Basin 3.286 metroko garaiera du. Banalerrotik mendebaldera eroritako elur kopuru handiari esker, Coloradoko eski estazio batzuek denboraldia uda arte luzatuko dute. Elur mantuaren maila altuak direla eta, klimatologoen aurreikusi dute mendebaldeko urtegi asko betetzen hasiko direla, urteetako lehortearen ondoren. *Jason CONNOLLY*



LIMOSNEN BIDEZKO ELIKADURA

Bisitariak limosna ematen diete monje hasiberriei Doi Suthep-en tenpluan, Chiang Mainen. Monjeak isilik paseatzen dira azafrai koloreko jantziz eta turistek eguneroko dohain tza hau eskaintzen diete, ikasketetan eta meditazioan jarraitu ahal izan dezaten. Horietako asko espeziatan egiten dira: galletak, patatak, fruta... Lillian SUWANRUMPHA



BALI, POSTALEKO ARGAZKIEN HELMUGA TURISTIKOA

Kayakean arraun, Sanur hondartzan eguzkia ateratzen den bitartean. Kostaldeko kobazulo eta hondartza bakartietara arraun egitea milaka turista erakartzen dituen tentazioa da. Joan den mende amaieran, Bali ez zen helmuga oso eza-guna, eta orain uharterik ezagunenetakoa da. Ekonomiaren %80 turismoarekin lotuta dago. Sonny TUMBELAKA



KOH CHANG UHARTEKO ELEFANTE ASIARRAK

Thailandiara itzulita, oraingoan Koh Chang uhartera, "Elefanteen Uhartera" esan nahi duena. Izena ez datorkio elefante basatiak dardelako, irlak duen elefante baten irudiaren antzeko erliebe markatsuatik baizik. Hala ere, bertara eramane zituzten elefante asiarrak batzuk daude uhartean, eta turistei horietako baten gainean ibiltzea eskaintzen zaie, oihan basatian eta hondartzetan galteko helburuarekin. Zenbait erakundek salatu egin zuten animalia horiek hezteko modu krudela. Jack TAYLOR



ABERATSEN EKOLOGISMOA

Bosco Verticale etxeorratzen multzoa Gae Aulenti plazan, Milanen. Boeri Studio ospetsuak diseinatu, 800 zuhaitz baino gehiagorekin tapizatutako bi eraikinek lorategi bertikal moduko bat osatzen dute. Helburua berotegi efektuko gasak arintzea da, baina ez daude hain zuzen klase herrikoiei zuzenduta, hiriko klase aberatsei baizik. Gabriel BOUYS



INDIRA GANDHIEN LORATEGI EDERRA

Turista bat, selfie bat egiten telefono mugikor batekin Tulipanen Lorategian, Asiako handiena dena, Srinagarren. Indira Gandhiren oroimenezko parkeak 12 hektarea ditu. Lorategia 2007an inauguratu zen, Kaxmirko haranean, lorazaintza eta turismoa sustatzeko. Tauseef MUSTAFA



ERLOJUAREN AURKAKO LASTERKETA

Norvegiako iparraldean, Svalbard artxipelagoan, Borebuktako badian, Nansenbreen glaziarra dago. Ikertzaile talde bat izotza zulatzen hasi zen apirilean, klima aldaketaren ondorioz desagertu baino lehen. Mendeetako ingurumen datuak ateratzea da helburua. Jonathan NACKSTRAND



ENTZUN. HITZ EGIN

Hitz egiteko,
entzun egiten
dugulako.

naiz:irratia

naiz:irratia

Donostia 93.8 / Urola 91.8 / Goierri 102.2 / Legazpi 94.6 /
Bilbo 92.2 / Gernika 96.7 / Durango 97.4 / Gasteiz 91.5 /
Bortziriak 103.1 / Leitza 95.1

irratia.naiz.eus

